


Haur Hezkuntza

# Haur txikiek benetako autonomia garatzeko oinarriak



LANBIDE  
EKIMENA





Proiektuaren bultzatzaileak **LANeki**



Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



Hizkuntza-koordinazioa



**Egilea:** JUDIT FALK: *Revista Infancia* núm. 116, julio-agosto de 2009 (FALK 2009)

Zuzenketak: Elhuyar Hizkuntza eta Teknologia

Maketa: Elhuyar

Azalaren diseinua: Naiara Beasain

**2012an itzulita eta prestatua**



---

# **0-3 URTE BITARTEKO HAURREN ESKOLA**

---



# HAUR TXIKIEK BENETAKO AUTONOMIA GARATZEKO OINARRIAK

JUDIT FALK

*Harluxet* hiztegiaren arabera, hau da autonomia: «Zerbaitek edo norbaitek, alor batean edo oro har, bere kabuz aritzeko duen askatasuna edo askatasun-maila». Banakoek beren egintzen ardura osotara beren gain hartzeko gaitasuna ere bada autonomia. Eta horixe izaten da, hain zuzen, gurasoen eta profesionalen guraria, alegia, definizio horretan oinarrituta, haurrak autonomo bilakatzea, baina ez dute beti argi ikusten zer bidetatik jo behar duten helburu hori lortzeko. Horregatik, ikuspuntuak askotarikoak dira haurren autonomiaren auzian.

Jende askok jotzen du garrantzitsutzat autonomia, aukera ematen baitio haurrari «gauzak bere kabuz» egiteko (jolastu, jan, jantzi, erantzi, eskuak garbitu), baita bere kabuz moldatzeak dakarren bozkarioaz gozatzeko ere. Guraso batzuek, seme-alabak haur-eskolara eramaten dituztenean, pentsatzen dute «etxean baino arinago eta errazago bilakatuko direla han autonomo, etxean ez baita astirik haurrari gauzak bere kabuz egiteko behar duen denbora emateko». Zenbait haur-eskoletan, bestalde, oso harro egoten dira txikiak ekintza batzuetan autonomo zein arin bilakatzen diren ikusita, batik bat gorputz-premiei dagokienez. Haurrak arlo jakin batzuetan autonomo bilakaraztea da helburua, helduek «balio handiagoko» eginkizunak betetzeko astia izan dezaten.

Aitzitik, beste pertsona batzuen iritziz, autonomiak kontra egiten dio erlazio afektiboen ikuskera jakin bati, ikuskera horren arabera helduarekiko mendekotasuna funtsezkoa baita. «Haurrei behar baino autonomia gehiago ematen badiezu, aholkuak emateko bidea ixten duzu». «Helduak hezitzaile-eginkizuna galtzen du». «Ekintza autonomoari gehiegizko balioa emanaz gero, ahuldu egiten da giza harremanen lotura. Ez da ona haurtxoak helduekiko harremanetik paso egitea, eta beren jolasean murgilduta gainerakoetatik bakartzea».

Beste guraso eta profesional batzuek, bestalde, ez dute uste haurra autonomoa izan behar duenik ez jarduera motorretan, ez jolasetan, ez ikaskuntza-prozesuetan ezta bere burua zaintzeko jardueretan ere, helduak haurraren duen aginpidea galduko bailukete hartara. «Zenbat eta autonomia gehiago eman, hainbat eta nekezago beteko dute zure esana».

Pertsona batzuek, berriz, «erdibideko» iritziak dituzte: «Taldean, haurrari baliagarria zaio autonomia izatea, baita helduei ere, ez baitute haur bakoitzarekin berariaz egoteko behar beste astirik. Baina familian ez dago horren beharrik». Beste zenbaitek neurritz kanpoko aurreikuspenak ere izaten dituzte: «Haurrak ahalik eta lasterren bilakatu behar du autonomo, bizitzan aukera guztiak zabalik izan ditzan».

Horrek guztiak agerian uzten du, oro har ez direla ondo ezagutzen autonomia-prozesuaren nondik norakoak; izan ere, haurrak autonomia heldua lortzeko prozesua bide luzea da, eta haur bakoitzak bere aldi eta erritmo zehatzak ditu, nortasuna eraikitzeke gainerako eremu guztietan gertatzen den legez.

Horrez gain, nolabaiteko kontraesana dago azken hamarkadetan lortutako datu zientifikoek eta jaioberriekiko gaur egungo jarreraren artean. Jaioberria ez da premia fisiologiko hutsak dituen gizabanako pasibotzat jotzen. Gaur egun, arreta handiagoa ematen zaie haurtxoaren beharrian afektiboei, ingurumenarekin dituen hartu-emanei eta haren ikaspen-prozesuei. Zenbait ikerketak erakutsi dutenez, jaioberriek eta bularreko haurrek, txiki-txikitatik, hainbat gaitasun dituzte —ezin susmatuzkoak ere horietako batzuk—. Jaioberria goiz-goizetik hasten da amaren ahotsa ezagutzen, estimuluei erreakzio bereizien bidez erantzuten eta formak, usainak, gustuak eta koloreak desberdintzen. Helduen aurpegiera imita dezake; estimulatu egin dakiok; harengan eragin daiteke, eta ikasi egin dezake. Bestalde, beste ikerketa batzuek erakutsi dutenez, subjektuari epe labur zein luzean askoz onuragarriagoa zaio ekintzak askatasun osoz egitea, hark hala nahi duelako, eta ez kanpotik hala inposatu edo ezarritako diotelako.

Dena den, haur txikietan espezializatutako aditu gutxi batzuentzat izan ezik, ikerketa horiek ez dute haurren garapenaren pedagogia aldatu, eta ez dute haurren garapen-gaitasunarekiko konfiantza areagotu. Hala, oraindik ere arbuia egiten da haurtxoak abiatutako ekintza autonomoa edo ez da aintzat hartzeko modukotzat jotzen. Ikusmolde horren arabera, haurrari bere gaitasunak irakatsi behar zaizkio edo, gutxienez, gaitasun horiek landuarazi egin behar zaizkio, egokiro gara dadin. Helduak, hala, haurra bere kabuz oraindik egiteko gai ez den hori «eginarazten» dio haurrari; nola egin behar den erakusten dio; bere keinuak imitatzeraz bultzatzen du, edo haren ordeztu jarduten du. Gorputza zaintzeko eta elikatzeko uneetan, berriz, ez dio askatasunez mugitzen uzten; areago, kontra ere egiten dio, hainbat amarru erabiliz baita indarrez ere, baldin eta haurrak helduaren jarduna oztopatzen badu.

Haurrekiko jarrerak, neurri handi batean, haurrek ikasi beharrekoa ahalik eta lasterren ikas dezaten lortzera bideratu dira. Goiz-goizetik estimulatu dira haurraren alderdi psikomotorea eta intelektuala, zentzumena, keinuak eta mintzamena —batzuetan baita gainestimulatu ere—. Gurasoei eta hezitzaileei irakaspen goiztiarreko programak edo metodoak proposatzen zaizkie, haurrei ekintza jakin batzuekiko zaletasuna azaltzeko edo zaletasun horiek pizteko eta zenbait lorpen ahalik eta lasterren erdiesteko. Garrantzi gutxi ematen zaio bularreko haurren eta haur txikien ekintza autonomoari; era berean, ez da kontuan hartzen zer baldintza behar diren haurrak jolas egitera eta barrenak husteraz bultzatzeko giro aproposa sortzeko. Alabaina, hezkuntzan egiten diren akats batzuk saihestu egin litezke, baldin eta haurrek goizetik ikasteko duten gaitasunari buruzko aurkikuntzetan oinarrituta helduek erabateko konfiantza izango balute haurren garapen-gaitasunean eta haien ekintza autonomoaren balioan.



Jaiotzetik bertatik hasten da haurraren autonomia garatzen, eta molde berezi bat hartzen du haurraren garapen-maila bakoitzean. Ondo ulertu behar da hori. Gure ustez, lehen autonomia-esperientziak haurra jaioberria dela abiatzen dira; izan ere, autonomia-esperientziak dira haurrak bere kabuz eta helduen esku-hartze zuzenik gabe gozamen bila edo gauzak egiteko desio hutsez egindako jarduera guztiak. Aurrerago ikusiko dugunez, haurrak berak abiatutako jarduera «autonomo» horretatik edaten du, hainbat lorpen erdiesteko alderdi psikomotor, afektibo eta kognitiboan. Lorpen autonomoen multzo hori, egokiro errespetatzen bada, helduaroko autonomiaren zimendua izango da.

Azter dezagun orain nola garatzen diren lorpen horiek haurra bakarrik jolastan ari denean eta gorputza zaintzeko jardueretan diharduenean. Jarduera horietako bakoitzaren bidez haurrak zer lorpen bereganatzen duen zehaztuko dugu, eta nola lagundu diezaioketen horretan helduek —guraso zein profesionalek—.



### Haurrak bere kabuz dihardueneko jolas-uneak

Haurrak hazteko eta garatzeko joera du berez. Barne-indar batek eta beren gorputzarekin zein inguruko objektuekin esperimintatzeko grinak bultzatzen du horretara. Gorputza egokiro zaintzeak sustatu egiten du haurra, bizileku duen gorputz horren ezaugarriak ezagutzera eta haren funtzioak erabiliz ikastera, baita bere larruazalaren mugen nondik norakoak aintzatestera ere, alegia, «nia» dena eta «nia» ez dena elkarrengandik bereiztera. Prozesu horretan, etengabe garatuz doaz haurrak, eta katean lotutako aldi jakin batzuk igarotzen dituzte guztiek —nork bere erritmora, jakina—. Hautxoaren ekintza autonomoak sustatu egiten ditu ahalmen zehatz horiek, eta ezin dira beste ezerekin ordeztu. Hautxoa, hartara, behar den moduan jarduteko gai da, bai mugimenduak menderatzeko orduan bai bere buruaren eta bere gorputzaren ahalmenak eta inguruan duen mundu materiala ezagutzeko bidean. Bere autonomia garatzeko, bere gaitasunekin esperimintatu behar du, ekintza autonomo horren bidez. Horrenbestez, haur guztien hezkuntza-prozesuan funtsezkotzat jotzen dugu, ekintza autonomoarekiko gogoia pizten eta sustatzen saiatu ordez:

- norberaren berezko gustuari eusten laguntzea;
- haurra babestea, inhibititu ez dadin;
- bere burua garatzeko baldintzak egokiak ematea.

Jarduera horren bidez, haurrak, garapen motor harmonikoa sustatzen duten esperientziez gain, beste esperientzia mota batzuk ere barnera ditzake, hala nola:

- eraginkortasun-sentimendua eraikitzeke eta adimena garatzeko oinarriak
- heldu sortzaile eta arduratsua izateko gaitasuna

Horrenbestez, orainari zein etorkizunari begira, garrantzitsua da txiki-txikitatik modu autonomoan aktiboa izatea. Gainera, gozamenen eta atseginen iturri ere bada jarrera hori. Horregatik, haur guztientzat —familian zein taldean haziak izan— da garrantzitsua txiki-txikitatik bizi-baldintza egokiak izatea beren berezko jarduerak nolako gozamina dakarkien ohartzeko, eta arian-arian, lortutako emaitzen bidez, jarduera hori areagotzeko. Gorputz-jarduera horiei guztiei lotuta, jarduera horiek egiteko eta garatzeko premia sortzen zaio haurrari, nahiz eta premia hori ez den azaleratzen hasten harik eta haurrak heldutasun fisiko eta psikiko jakin bat lortu arte. Lorpen bakoitza aurreko lorpenari lotzen zaio, eta ez da garatzen hasten harik eta aurrekoa ondo burututa egon arte, alegia, aurreko lorpen hori hurrengo lorpenetarako oinarri sendoa bilakatu arte; jardunbide horri esker, unean-unean saiatzen ari den keinu hori guztiz menderatzea lortzen du haurrak, eta erabateko segurtasuna eskuratzen du azkenik.

Haur txikiak egoera psikiko ona badu, nahikoa espazio uzten bazaio eta jostailu egokiak ematen bazaizkio, inguruarekiko interes bizia adieraziko du bere ekintzetan; arreta biltzeko gai izango da, eta irmotasun eta adore barez jardungo du, maiz haur nagusiagoetan gertatzen ez den bezala. Eta guk gero eta trebatuago sumatuko dugu ekiten dituen jarduera guztietan.

### Mugimendu handien eta autonomiaren garapena

#### **a) Prozesuaren eta lorpenen azalpena**

Haurraren lehen lorpenetariko bat bere eskuaz ohartzea da. Bizitzaren lehen asteetan, ez dirudi haurra bere eskuko berezko keinuez jabetzen denik, nahiz eta eskua bere ikuseremutik igaro. Une jakin batean, baina, bigarren eta bosgarren hilabeteen artean, eskuari erreparatzen dio bat-batean; eskua mugitzeari uzten dio une batez, begiekin jarraitzen dio haren mugimenduari, eta burua birarazten du hari jarraitzeko.

Aurrerago, eskua begietatik gehixeago aldentuta, badirudi luzaroago begiratzen diola eskuari aurrez aurre; eta tarteka-marteka berriz ere egiten du keinu hori. Eskua mugitu, eta gelditu egiten du; begietara hurbildu, eta urrundu; eskumuturra ireki eta itxi... Eskua bere ikuseremutik ateratzen denean, berriz ere nola aurkitu ikasten du.

Hurrengo asteetan, esku-ahurra eta eskugaina aurkitzen ditu hurrenez hurren, besondoaren pronazioaren eta supinazioaren bidez, ukondoa tolestuz eta zabalduz, artikulazioa abduzituz, adukzituz eta errotatuz... eta aldi berean sentsazio proziozeptiboen oparotasun hori saiatuz eta buruan gordez.

Mugimendu horien guztien bidez ikasten du begien aurrean duen objektu hori bere baitakoa dela, mugitu egin dezakeela, aurkitu eta lekuz aldatu egin dezakeela berriz ere. Ohartzen da gorputz-adar hori osorik mugitu dezakeela edo atal batzuk baino ez —atzamarrak adibidez—. Eskuaren mugimenduei jarrai diezaieke begiradaz; burua mugitu dezake eskuaren mugimenduei jarraitzeko, eta gerora bideratu egin ditzake begiradaz.

Gai da bi eskuetarik bati begiratzeko, biei batera begiratzeko edo aldian-aldian bati eta besteari begiratzeko; batzuetan, esku batek beste ukitzen du, eta esku biak elkarrekin eskuztatzen ditu, instant horretantxe ohartuko balitz bezala bi esku dituela.

Begi-eskuak koordinatzen ikastea funtsezkoa da, haurtxoak bere ingurunearekin hartu-eman egokia lor dezan. Izan ere, bizitza osoan ingurua miatzeko eta gauzak aurkitzeko erabiliko duen baliabide nagusia aurkitu eta landuko du hartara.

Handik zenbait hilabetera, eskuekin gertatu zen bezalaxe, oinak aurkituko ditu haurrak, eta ohartuko da nahi duenean altxa ditzakeela, ahora eraman eta abar. Gimnasia-ariketa aparta da hori gainera.


Adibide horietan, haurra, itxuraz, funtzio bakar batez baino ez da arduratzen. Baina gainerakoari begiratzen ez badio ere eta nahitara eskua baino mugitzen ez badu ere, gainerako gorputz atalak ere ez daude geldirik. Itxuraz geldirik badaude ere, benetan mugimendu-kate konplexu bat egituratzen dute, gorputz osoaren orekari eusteko; izan ere, oreka hori lortuko ez balu, ezin izango lioke eskuari begiratu ere egin bere borondatez. Bada, gorputz osoaren orekari esker du haurrak unez une eskua mugitzeko behar dituen bermaleku guztiak.

Arian-arian, ikusten da haurraren mugimenduak honezkero ez direla zoriaren ondorio. Gorputz atalak jada ez dira halabeharrez edo erreflexu hutsez mugitzen. Haurrak esku eta oin biak darabiltza txandaka, aldebikotasunaz jabetuko balitz bezala, eta atal horiekin batera gorputza bera ere mugitzeko gai da; areago, gorputz atal bat baino gehiago mugi dezake aldi berean, ekintza bat egiteko, ekintza osagarriak egiteko eta baita ekintza bereiziak egiteko ere. Gai da, esaterako, objektu bat esku batetik bestera eramateko —esku batekin hartu eta bestearrekin askatu—; objektua ahora eramaten du, noiz eskuinarekin noiz ezkerrekin, aldi berean orpoarekin orekari eusten diola edo belaunak okertzen dituela (bi belaunak hurrenez hurren, inoiz).

Jarrera aldatzen du; jarrera jakin batean geratzeko gai da edo mugitzeko modu bat baino gehiago darabil. Benetako jabetasun horri esker, gorputzak eskaintzen dizkion bestelako aukerak aurkitzen eta saiatzeko ditu haurrak, egoera berri batean oreka modu berri bat aurkitzeko.

Esaterako, ahoz gora etzanda dagoela, pelbisa birarazi, bizkarra igo eta pixkanaka-pixkanaka gorputz-enbor guztia eta burua birarazten ditu. Bizkarrak angelu zorrotza eratzen du gainaldearekin. Angelu hori, gero, zabaldu egiten da, eta 90°ra iritsi: albo batera jartzea lortu du haurrak. Oreakari eusteko, gainaldearen kontra bermatuta ez dagoen besoan edo hankan hartzen du oinarri; gai da, halaber, eskua edo oina askatzeko. Burua edo enborra atzerantz biraraziz, ahoz gora jar daiteke ostera ere.

Albo baterako posiziotik abiatuta, gero eta gehiago bira egiten du haurrak. Bizkarrak gainaldearekin eraturako angelua gero eta handiagoa da, eta, azkenik, ahoz behera jartzea lortzen du. Jarrera horretan, luzaroan eduki dezake burua altxatuta. Ondoren, pixkanaka-pixkanaka bularraldea altxatu ahala, gero eta txikiagoa da gainaldea ukitzen duen gorputz-enborraren zatia. Zenbat eta gehiago aurreratu, hainbat eta hobeto eusten dio oreakari, goiko eta beheko gorputz-adarretan soilik oinarri hartuta. Bermaleku gero eta txikiago batean eusten dio oreakari.



Posizio horizontaletik bertikalera igarotzea, pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago altxatzea bai gorputz-enborra baita burua ere—erlatiboki gorputzaren atalik astunena—, mailaz maila berme-poligonoaren azalera txikitzea... lorpen konplexuak dira horiek denak.

Haurrak berak abiatutako garapen motor horretan, tarteko posizioak eta mugimenduak ere badaude. Tarteko posizio horiek —Anna Tardosek aztertutak eta ikertutak— haur guztietan gertatzen dira —askatasunez mugitzeko gaitasuna badute, betiere—, eta hurrenkera berean azaleratzen dira gehienetan. Eginkizun garrantzitsua betetzen dute gorputzaren autonomiaz jabetzeko prozesuan, posizio batetik besterako etengabeko zubiak eratzen baitituzte, oreka-aldaketa txikiak eginez, haurra unean uneko posizioan orekatuta egon dadin.

Gauza bera azaldu daiteke lekualdaketei buruz, zeinak posizioak bezain ugariak baitira. Haurrak tarteko modu asko erabiltzen ditu leku batetik bestera mugitzeko, lehen saiakeretatik hasi —bizkarrez uhin-itxurako mugimenduen bidez edo bere gorputza ardatz hartuta bira eginez— eta oinez ibiltzeraino. Gizakiak berezkoa du oinez ibiltzea, baina, horretarako, zenbait aurkikuntza egin behar ditu haurrak; hau da, gorputzaren beste oreka modu batzuk topatu behar ditu, koordinazio konplexu batzuk egitea lortzeko. Batera eta bestera balantzan ibiliko da hasieran, biraka, narrasean, katamarka... Altxatu, eta zutik egoten ikasiko du gero, eskuekin objektu egonkor bat hartuta edo hartan bermatuta, harik eta zutik dagoela mugitzeko oinarritzko modua topatzen duen arte. Alboetara egiten ditu lehenik urratsak, eta aurrerantz gero. Aldian-aldean inguruan dituen objektuak hartzen ditu euskarriztat, batetik bestera igaroz —oreka galdu gabe edo ostera ere oreka bilatuta—, edo aurrean duen objektuari helduta eta hura bultzatuz lortzen du aurrera egitea. Ezeri heldu beharrik gabe zutik jartzen ikasten duenean, lehen urratsak egiten ikasten du; gorputzaren pisu osoa oin batetik bestera igaroraraziz egiten ditu urratsak,

unez une orekari eutsiz edo bere burua berronekatuz. Hasieran, orekari eustera bideratzen du arreta guztia. Horretarako, ondo bereizten ditu oinak, eta besoak erabiltzen ditu oreka bilatzeko. Hasieran, lehen urratsetan, jostailuren bat hartzen du eskuartean, oinez ibiltzeko, eta irmo atxikitzen zaio hari, segurtasun bila-edo. Hurrengo asteetan, gero eta seguruago egiten ditu urratsak; oreka, honezkero, ez da horren ezegonkorra; oinak ez ditu horrenbeste bereizten, eta dagoeneko ez du eskuen beharrik orekari eusteko. Gelditzeko eta berriz ere abiatzeko gai da. Aise alda dezake noranzkoa; ez du arreta osoa ibileran jarri beharrik.

Jarduera jarraitu hori guztiz autonomia da, eta ezinbestekoa norbanakoa «gai sentitzeko». Bien bitartean, beste posizio batzuk garatzen jarraitzen du, eta dagoeneko gai da helduaren laguntzarik gabe aurreko posiziora itzultzeko, mugimenduak guztiz kontrolpean dituela. Eroso sentitzen da, eta jarrera aktiboa izan dezake, ezintasunaren eta mendekotasunaren kateetatik aske; ekintza-, arreta- eta abilezia-maila bera baitu bere garapenaren aldi bakoitzean. Izan ere, haurra, hazi ahala, ez da berehalakoan igarotzen trakestasunetik abileziara edo egonetik jardunera. Haurraren jarrerak eta gaitasunak gero eta egiteko konplexuagoak betetzeko aukera ematen diote, garapen-aldi aurreratuagoa lortzen duen heinean. Garrantzitsuena ez da alditik aldira ahalik eta azkarren igarotzea, baizik eta tarteko aldi guztietatik bere kabuz igarotzea, batetik bestera lorpen berriak eginda.

Motrizitate aske hori, itxura batean, estu lotuta dago haurren etengabeko mugimendu-premiarekin eta garapenaren maila bakoitzean dituen bitartekoeekin. Hartara, alderdi tonikoa eta posturalak elkarri egokiro uztartuta, motrizitatea muin-muinetik egituratzea lortuko du beti, bai halaber funtzio psikiko guztiak oinarritik garatzea. Dagoeneko orekari eusten dio beti, edo bere burua berronekatzeko gai da; hala, bada, arretari euts diezaioke, eta abiatutako mugimendu guztiak egin. Atsedenerako jarrera egokiena hartzeko aukera du orain, baita objektuak eskuetan erabiltzeko eta eroso jolas egiteko edota inguruan duenari arretaz erreparatzeko ere. Gainera, hala abian jarri dituen mugimenduak eta jarrerak nola bere saiakuntzak baliagarri zaizkio bere buruaren gaineko irudia eratzeko eta gorputz-eskema zuzena eraikitzeko. Joan-etorri horiei esker, bestalde, inguruan espazioaz jabetzen hasten da baita hango objektuek eta bere buruak duten kokapenaz ere.

Aldi bakoitzaren hastapenetan ohikoak dira saiakerak, hutsegiteak eta zalantzak, guztiak ere ikaskuntza-prozesuaren ezinbesteko osagai baitira. Baina helburu zen mugimendua lortutakoan, nabarmen hobetuko da koordinazioa, mugimendu-ekonomia eta oreka. Pozik dago haurra; eraginkorra dela hautematen du, hasitakoa burutzea lortu duela baitaki.

### **b) Helduaren eginkizuna. Heldu-haurren arteko elkarrekintza, hurbileko harremanetan.**

Haurraren ekintza askeari dagokionez, helduek arretaz egin behar dute ekintza horren segimendua, jakintzetan eta behaketetan oinarrituta. Segimendu hori egiteko, ahalik eta egokien erantzun behar zaie haurrak unez une dituen premiei, erantzun horiek aurrera egiteko irrika piztu diezaioten. Zein dira, baina, segimendu horren oinarritzko elementuak?

Haurrek ezinbestekoa dute seguru sentitzea. Horretarako, helduarekiko harreman goxo, atsegin eta konfiantzazkoan oinarritutako segurtasun afektiboa behar dute. Bada, besteak beste, harreman horrek

sustatzen du ekintza aske eta autonomoarekiko zaletasuna, garapen harmonikorako gozamen eta esperientzien iturri; izan ere, zaletasun hori indartzeo ezinbestekoa da haurrak eraginkortasun-sentimendua garatzea, bai helduarekiko harremanetan bai abian jartzen dituen jardueretan. Ekintza askeekiko grina agortu egiten da berehala, harreman afektibo horrek elikatzen ez badu.

Segurtasun-sentimendua eratzeko, dena den, funtsezkoa da helduak babes ematea. Azter ditzagun, bada, babes horren nondik norakoak:

- Haurrak igortzen dituen seinaleen bidez zailtasunen bat duela «jakitera ematen» duen unetik bertatik, helduak egoera horretaz jabetu dela adierazi behar dio haurrari, nahiz eta haren ikuseremutik kanpo egon. Izan ere, ekintza askean ari den haurrak, bakarrik dagoenean, ez du inolaz ere sentitu behar baztertuta dagoenik; aitzitik, helduaren esku-hartze zuzenik gabe bare eta lasai jolasteko une luze modura bizi behar du ekintza askea. Haurraren jardunean zuzenean esku hartzen denean, ez zaio aukerarik ematen bere kabuz diharduenean lortzen duen sentimendu atsegin horretaz gozatzeko, eta aldatu egiten zaizkio aurreikuspenak eta ekimenak. Gainera, hain zaio atsegin esku-hartze hori, non nekez uko egingo baitio aurrerantzean mendekotasun horri. Haurra frustratuta eta atsekabetuta sentitzen bada bere kabuz ezin duelako helburu bat lortu heldu baten laguntzaz bezain arin eta erraz, galdu egiten du bere garapen-mailari dagozkion jardueretan aritzeko irrika eta horrek dakarkion gozamina. Frustratuta sentitzen da, ezin direlako beti bete hastapenetan helduekin abiatutako jolas horiek sortutako aurreikuspenak. Zenbat eta gehiago aurreratu, orduan eta gehiago lotzen zaio helduari, are seguruago egon eta are independenteagoa izan beharrean. Kanpoko ekimenaren zain badago, aise aspertzen da, ez baitaki bere kasa nola ekin. Haurrari hark ezarritakoak ez diren helburuak proposatzen bazaizkio, helduaren esku-hartzea oztopo bilakatzen da, haurrak bere kabuz ekin dezan eta bere helburuak lor ditzan; esku-hartze horrek, gainera, areagotu egiten du haurrak helduarekiko duen mendekotasuna. Aitzitik, haurraren autonomia begirunez zaintzen bada, oinarri egokia eratzen da, helduen eta haurraren arteko harremanean biek ala biek elkarri egokiro kontu egiteko eta elkarrengan uste osoa izateko.
- Haurraren ekintza autonomoa errespetatzeak, dena den, ez du esan nahi helduak axolagabe jokatu behar duenik. Helduak gertu egon behar du; elkarrekin harremanetan egon behar dute helduak eta haurrak, bien artean distantzia fisikoa egon arren; hala, lantzean behin elkarri begiratzeko eta hitzak edo soinuak trukatzeko moduan egon behar du helduak kokatuta. Heldua hor duela sentitu eta imajinatu behar du; heldua hor dagoela jakin behar du —beti baitago hor— eta laguntzeko prest dagoela, hark behar izanez gero. Horratx gakoa. Noizean behin, komeni da helduak haurren lorpenak aintzatestea ahoz, emaitza horiez jabetzen lagunduko baitiote hitz horiek haurrari. Haurrak, bestalde, lorpen bat egiten duen aldiro, bere bozkarioa helduren bati adierazteko premia izaten du. Baina aparteko lorpenik egin ez badu ere, aintzatesten dutela eta maite dutela sentitu behar du, berdin-berdin. Helduak haurrarekin keinuak eta hitzak trukutzen dituenean hizkuntza oparoa erabiltzea lagungarri zaio haurrari, dagokion mailan bere buruaz eta inguruneaz jabetzeko eta bere bizitzaren gertakizunetan eta harremanetan kokatzeko.

- Haur bakoitzak alderdi motorretik egiten dituen aurrerapenen erritmoa errespetatu behar da; horrenbestez, ez da jarri behar oraindik bere kasa menderatzeko gai ez den jarrera batean; era berean, ez zaio bultzatu behar bere gaitasunetatik harago dagoen ezer egitera. Haurraren erritmoa errespetatzea, beraz, helduaren zeharkako laguntzaren barruan sartzen da.
- Haurrari bere gaitasunak lantzeko baldintza aproposak finkatu behar ditu helduak, eta,aldi berean, egoera arriskutsuetatik babestu. Horixe da helduaren eginkizuna. Haurraren heldutasun-maila eta dagokion garapen-maila nolakoak, halakoxeak dira zehatz-mehatz haren arreta eta interesa, betiere baldin eta haren jolas-eremua ondo egokituta badago, hau da, baldin eta jostailu aproposen kantitate egokia badago eta ez badago jostailu gainestimulatuzailez eta «probokatuzailez» inguratuta (oharkabean edozein keinu egin bezain pronto, beren kabuz mugitzen edo soinua ateratzen duten jostailuak dira); bestalde, haurra bere gorputzean gustura egotea eta mugimenduak aske egitea ere ezinbesteko baldintza da.

### ■ Manipulazioa eta jolasak

Haurraren jarduera modua zenbait faktoreren arabera da: bere arreta-gaitasunaren arabera, interes-mailaren arabera, oreka afektiboaren arabera eta unean uneko umorearen arabera, hain zuzen. Alabaina, bere gorputz-gaitasunen miaketa, lanketa eta garapena estu lotuta daude inguruneak eskaintzen dion horretara, eta inguruan duen munduaz jabetzeko prozesuarekin batera eta hari lotuta garatzen dira. Horrek guztiak bide ematen dio haurrari:

- munduaz jabetzeko
- ikasketa-prozesuak ikasteko eta pixkanaka-pixkanaka menderatzeko
- bere gorputza ezagutzeko eta gorputzaren premiei kontu egiten jakiteko.

Mugimendu handiekin batera, esku-jolasak ere egiten ditu haurrak —gero eta ugariagoak eta konplexuagoak, garatzen doan heinean—. Modu guztietara miatzen ditu inguruan dituen objektuak. Objektuen arteko desberdintasun bereizgarriez ohartzeko gai da: zer neurri eta pisu duten, zer koloretakoak diren, zer azal mota duten, malguak edo zurrinak diren eta abar. Askotariko esperientziak bizi ditu objektuekin, eta haiekin zer egin dezakeen ikasten du: urruti edo hurbil dauden, horiek ukitzeko, altxatzeko, bultzatzeko edo botatzeko ahaleginen bat egin behar ote duen (luzatu, mugitu...) eta abar. Aldi berean, gai da bere gorputzaren keinuei eta mugimenduei kontu egiteko baita inguruan dituen objektuei eta bere ekintzen ondorioei arretaz erreparatzeko ere.



Inork ez badio agintzen zerekin eta nola jolastu behar duen eta inork ez badu haren arreta erakartzen edo desbideratzen, nahi beste denboran egoten da objektu batekin jolasean, objektu horri egiazki arreta eman diezaiokenean.

Halako ekintzetan diharduela, bere ikasketa-aukera zehatzak lantzen ditu haurrak. Ekintza bera behin eta berriz eginez, ekintza horren efektuez jabetzen da, eta gogoan gorde ditzake hartara. Horrela, efektu horiek berak lortzen saiatuko da hurrengoetan ere. Bere mugimenduen ondorioak behin eta berriz saiatuz, aldeko feedbackaren eta feedback zuzentzailearen eraginei esker, berariazko eta borondatezko ekintza bilakatuko da berezko jarrera hori. Esate baterako, ustekabeen egindako mugimendu batek inoiz ez bezalako efektua eragin badu, baliteke haurrak hasieran ez jakitea nola sortu den, eta agian ez da saiatuko berehala efektu hori bilatzen, baina uneren batean (egun berean, hurrengo egunean, hurrengo astean...), berriz ere ekingo dio, harik eta efektu hori eragiten duen keinua edo mugimendua egiten ikasten duen arte.

Ingurua miatzen duenean, galderak sortzen zaizkio, eta galdera horiei bere kabuz erantzuten saiatzen da. Galderak egiteko eta esperimintatzeko jarrera hori dago haurraren ekintza guztien atzean, eta jarrera horrek berak erakusten dio bere buruari lortzeko moduko zereginak ezartzen. Egoera horretan, beste inoren eraginik ez badago, arrakastarik gabeko saiakerak ez dute porrot-sentimendurik eragiten.

Ekinean dagoela, proiektua aldatzeko eta bere ekintzen ondorioz sortutako galderei erantzuna emateko aukera du haurrak. Ekintza eten egin dezake, eta, gerora, berriz ere ekin. Une jakin bateko porrota onartzen jakitea eta ekintza-plano bat malgutasunez aldatzen jakitea ere ikasketa-prozesuaren barruan sartzen dira.

Egiten dituen ekintzen efektuei arretaz erreparatzen ikasita, bere gaitasunak perfektionatzen ditu. Ikasten ikasten du, eta, izatez, lorpenak egitea bera baino garrantzitsuagoa da haurrak ikasteko prozesuak abian jartzea.

Jarduera motor eta eskuzko jarduera horiek abian jartzen dute garuna; hala, garuneko jarduera hori zentzumenen eta alderdi motorraren erritmo berean garatzen da. Jarduera horiek «buruko eragiketak» egitera bultzatzen dute haurra, esperimintazioaren aurretik zein ondoren, eta halaxe lantzen ditu dedukzioa, aurrerapena, memorizazioa eta askotariko loturak: objektuen artekoak, norberaren eta objektuen artekoak, objektuen eta pertsonen artekoak eta abar. Haurrak, noski, ez ditu prozesu horiek helduenen moduko hitzez eta pentsaeraz egiten; bere gorputzaren bidez bizitzen eta eraikitzen du hori guztia. Jarduera motorrak ekoizten du buruko jarduera —haren oinarria da, beraz—, eta buruko jarduerak, aldi berean, jarduera motorra elikatzen eta pizten du.

Jarduera motorra garatuaz batera, kontrola ditzakeen adina arrisku txiki hartzen ikasten du. Zuhur jokatzeko miaketa-uneetan. Zuhur jokatzeko, esaterako, bira egiten duenean, burua lurraren, hormaren edo parkeko barreren kontra jo ez dezan, gainazal gogorrak direla ikasi baitu. Inoiz oholtza edo maila batera igotzea lortu badu (katamarka izan bada ere), haurraren gorputz-memoriak



aurrerantzean gogoan du zer-nolako ahalegina egin behar izan zuen orduko hartan, eta kontuz jaisten da hurrengoetan.

Haurtxoaren berezko jarduerak aldian aldiko geldialdien edo atsedenaldeen erritmoei jarraitzen die. Luze-labur, jarduera berari ekingo dio berriz ere, edo beste batean hasiko da. Bere burua erregulatzeko gai denez, bere kabuz erabaki dezake noiz jardun eta noiz atsedean hartu.

Haurrak bere gorputz osoarekin esperimentatzeko aukera duenean, egokiro egiten dute bat alderdi tonikoak eta posturalak, eta kontuan hartu behar da alderdi horiek haurraren motrizitatean eragiteaz gain, gainerako funtzio psikikoetan ere eragiten dutela. Gorputza eta gorputzaren oreka menderatuz, ingurunera egokitzeko gai da, eta harekiko elkarrekintza ezar dezake. Henri Wallonek frogatu duen legez, jarduera sentsorial-motorrak halaxe egituratzen ditu pentsamenduaren erroak, eta horixe da adimenaren osagaietako bat. Gainera, jarduera sentsorial-motor horretan diharduela, haurrak lorpenak egin, ikasi eta perfektionatu egiten ditu aurreko ikaspenak; horrek, bada, jarraitutasunaz oharitzen laguntzen dio nolabait, eta, hartara, sendotu egiten ditu eraginkortasun-sentimendua, oinarritzko segurtasuna eta bere niaren indarra.

Haurrak, ekintza autonomoari esker, bere gorputz osoarekin jardun dezake uneoro abian jartzen dituen ekintza guztietan, eta bere gorputza sentitu dezake. Bere gorputzari kontu egiten dio beti; harekin eta haren seinaleekin solasean eta harmonian bizi da. Bere gorputzaren gaitasunen mugak ezagutzen, ulertzen eta onartzen ditu. Ez du, beraz, porrotean pentsatzen, eta, hortaz, ez du gutxiegitasun-sentimendurik. Bizipen horrek gozamina aurkitzen laguntzen dio: bere gorputza sentitzeko gozamina, bere gaitasunak sentitzeko gozamina, inguruan duen mundua esperimentatzeko gozamina... Urteen joanean, gero eta hobeto ezagutzen eta onartzen du bere burua. Nor bere gorputzean gustura egotea, gorputza ezagutzea, egoerak eramaten jakitea, erlaxatzea, tentsiorik gabe jardutea, motrizitate orekatu eta ekonomikoa izatea... horrek guztiak zailtasunei aurre egiten laguntzen du eta oreka afektiboa eta emozionala topatzen. Helduak baldintza aproposak ematen badizkio, haurra, heldu ahala, bere kasa garatu daiteke, eta bere gorputzarekin harmonian bizi.

Horrenbestez, hauxe izango litzateke lehen atal honen ondorioa: helduak haurren txiki-txikitatiko jardun independentea zinez baliotsutzat jotzen badu orainerako zein etorkizunerako, pentsaera horrek aldatu egingo du halaber guraso zein hezitzaile modura duen eginkizunaren ikuspegia. Gurasoek, jada, ez dute pentsatzen uneoro haurrarendik gertu egon behar dutenik ezinbestean; ez diote etengabeen arreta ematen, eta ez dute uneoro estimulatu eta gidatzen. Helduarekin igarotako uneak haurrarentzat preziatuak dira benetan, eta funtsezkoak dira jardueretik zaletasuna sortzeko; alabaina, ekintza aske eta autonomorako tartek ere neurri berean dira garrantzitsuak.

Haurra, buru-belarri aritzen da gorputzaren eta eskuen gaitasunak lantzen eta eskura dituen objektuak miatzen, eta ez du horretarako heldua gertu eduki beharrik beti; ez du etengabeen helduaren parte-hartzea behar, ez baitu inondik ere sentitzen gauzak egiteko ahalmenik ez duenik.

Amak, beraz, beste zeregin batzuk egiteko edo bere premiak asetzeko erabil dezake denbora hori, inolako erruduntasunik sentitu gabe, haurraren esklabo dela sentitu gabe edo bere jostailua dela sinetsi

gabe. Gai da haurren espazioa errespetatzeko, eta, aldi berean, berea zaintzeko, haurren jardueraz, arreta tinkoaz eta aurrerapenez gozaten duen bitartean. Hartara, orekatuagoa da amaren eta seme-alabaren arteko harremana.

Taldeko abegi-eremuetan ere oso garrantzitsua da ekintza autonomoaren balioaz ohartzea, haurrekiko harremanean oreka zehatza aurkitzen laguntzen baitio hezitzaileari; baliagarria zaio, orobat, ulertzeko zer-nolako lotura sendoa duten elkarrekin haurren eta helduaren arteko harreman goxoak —gorputza zaintzeko unean, batik bat— eta ekintza aske eta autonomoaren kalitateak. Haurrak, gorputza zaintzeko uneetan segurtasun irmoa sentitzen badu, jarrera autonomoagoa du, hots, libreagoa. Hartara, gainera, denbora uzten dio hezitzaileari, beste haur batez arduratu dadin. Hezitzaileak haur bakoitzari behar duen denbora eman diezaion eta denbora horretan arreta eta interes guztia haurraren jar dezan, sakon-sakonetik sinetsi behar du haurrak hezitzailearekin igarotzen dituen uneak ezinbestekoak dituen bezalaxe, ezinbestekoak dituela, orobat, ekintza aske eta autonomokoak. Uste sendo hori ez badu, pentsatuko du haurren ekintza autonomoak garrantzi txikiagoa duela, eta heldu-haurren arteko harremanaren ordezkotza hutsa dela. Orduan, erruduntasun-sentimendua helaraziko dio haurrari nahi gabe, eta aditzera emango dio ezin izan duela harekin egon, beste batzuen eskariei erantzun behar zuelako. Erruduntasun-sentimendu horrek, bada, gaiztotu egingo du harremana. Haurrak, jardueraz gozatu beharrean, egonezina, frustrazioa eta bakardadea sentituko ditu, eta sentimendu horiek antsietatea eta larritasuna eragingo dizkiote. Guraso-haurren arteko harremanetan ere gertatzen da fenomeno hori.



### Gorputza zaintzeko unek. Helduen eta haurren elkarrekintza zuzenak.

Haurren ekintza autonomoa kontuan izateak errotik aldatzen du haurrekiko ikuspegia, eta sakon-sakonetik markatzen du haien arteko harremana. Ikuspegi horrek, haurrekiko errespetua barne hartzen du, zeina bien arteko harremanaren oinarri bilakatzen baita. Bien arteko maitasuna ez da ez handitu ez txikitu; bestelakoa da orain; hori baino ez.

Haurren ekintza autonomoa aintzatetsita, helduak kide edo lagun aktibo modura hartzen du haurra. Horrela, bada, haurra txiki-txikia dela hasten da jada bien arteko komunikazioa harilkatzen, begirada, laztanak, keinuak eta hitzak baliatuta, eta komunikazio modu horretan heldua ez da elkarrekintza abiatzen duen bakarra. Aitzitik, haurren keinuek eta adierazpenek erakusten diote helduari bidea, eta helduak erantzun, indartu eta zentzuz janzten ditu. Horrela, segurtasun afektiboa indartzeaz gain, bere buruaz jabetzen laguntzen dio haurrari, eskubide osoko pertsona dela ohartu dadin. Horregatik, gorputza zaintzeko une horiek baliosoak dira oso helduarentzat. Biak bietara egoteko uneak dira, biak elkarrekin; une goxoak dira, gertu-gertukoak; horregatik, une horietarako behar beste denbora hartzea komeni da. Haurren «parte-hartzeak» ekintzak moteldu arren, «adiskide» bien barrena bete dezakete une horiek, elkarrekin partekatutako bozkario, esperientzia, komunikazio eta elkarrekintzarako uneak baitira. Hori guztia, gainera, lagungarria da bien arteko harremana orekatzeko.

Gorputza zaintzeko uneetan, helduak kontu eta arreta handiz artatu behar du haurra; alde zuzenetik eman behar dio aditzera zer egingo duen eta zer gertatuko den, eta uneoro ahalegindu behar du haurrak bere nahiak eta irrikak adierazteko darabiltzan keinu eta seinaleak ulertzen. Jaten eman behar dio; pixoihala aldatu; jantzi eta erantzi; esfinterrak menperatzeko saiakeretan lagun egin... hori guztia haurren keinuak eta seinaleak aintzakotzat hartuta beti. Modu horretara, gorputza zaintzeko eta sortzen zaizkion beharrezkoak asetzeko prozesuan «esku hartzeko» aukera ematen dio helduak haurrari, haren adina zeinahi dela ere. Seinale horiek arlo askori buruzko informazioa eman dezakete: atsedean hartzeko zer erritmo behar duen, zenbat janari nahi duen eta zer tenperaturatan, noiz amaitu nahi duen jaten, helduaren mugimenduen erritmoa aproposa den (pixoihalak aldatzerakoan edota jantzi eta erantzuterakoan), bainurako zenbat ur eta zer tenperaturatan nahi duen eta abar. Haurra ziur badago berarengan eragina duten gertaeretan parte har dezakeela, subjektu parte-hartzailea dela igartzen badu eta ez objektu bideratu eta manipulatu hutsa, ziurtasun horrek indartu egingo du bere eraginkortasun-sentimendua.

Helduak haurtxoa pertsona modura tratatzen badu, helduaren hitz eta keinu goxoez etengabe ematen badute aditzera jabetzen dela haurtxoa sentibera dela eta gertatzen zaion guztiak eragin egiten diola eta ezin duela haurtxoa nahierara bideratu edo manipulatu, orduan nolabaiteko koordinazioa lortzeko dute biek elkarrekin egiten dituzten ekintzetan. Benetako elkarriketa eratzen da bi kideen artean. Elkarriketa horri esker, haurrak, arian-arian, gero eta bitarteko gehiago bereganatzen ditu, berarengan eragina duten gertakarietan parte-hartzeko mezu eraginkorrak igorri ahal izateko. Helduak, trukean, gero eta bitarteko gehiago eskuratzen ditu, haurrak bere asmoak egokiro uler ditzan, bere jarrera haurrak adierazitako premietara egokitu dadin edo, areago, haurra bere proposamenak pozarren onar ditzan. Komunikazio horri esker, haurrak gertakarietan parte har dezake, osotasunean. Haurrak zainketak modu pasiboan ez onartzeko balio du elkarriketak, modu aktiboan parte har dezan eskatzeko eta bere gorputzaren premiak asetzeari dagokion arloetan autonomia lortzeko bidean atsegin hutsez aurrera egiteko. Gainera, helduak ez badu parte-hartze hori berariaz exijitzen baina parte-hartzeari bide ematen badiu haurra horretara sustatuz eta lorpenak balioetsiz, haurra, helduarekin harreman ona izanik, benetako lankidetzaz aukera horretaz baliatzen da, autonomia lortzeko prozesuan aurrera egiteko. Haurtxoa benetan bere borondatez laguntzen dionean helduari, atsegin hutsez laguntzen dio, eta helduaren eskaerari egokiro erreakzionatzeko eskumena ematen dio bere buruari; baina, era berean, eskumena hartzen du, orobat, jolasteko irrikara lerratuta noizean behin eskatu zaion horretatik desbideratzeko, bai halaber heldua ematen ari zaion arreta horretatik «atera» eta beste zeregin bati

heltzeko edota gertakizun jakin bat dela-eta heldua ohartarazteko. Eta, heldua haurrarekin elkarlanean badabil, agerraldi horiei bide ematen die, ezarritako mugen barruan betiere.

Autonomia ez da berez helburua. Ez du benetako baliorik, baldin eta harekin batera haurrak ez badu gauzak bere kabuz eginez gozaten eta ez badu independentzia hori muga jakin batzuen barruan balia dezakeen ondasun preziatutzat hartzen.

Haurraren bigarren urtean, eraldatu egiten da lankidetzat. Helduarengan ezinegona igartzen ez badu, autonomiaz jardutera behartuta sentitzen ez bada eta gorputza zaintzeko une goxo, atsegin eta arretatsu horiez gozaten badu une horiek helduarekin batera partekatze berariazko unetzat hartuta, haurra, pixkanaka-pixkanaka, autonomo bilakatzen da berez, gorputzaren premiak asetzeko arloetan. Guztiz naturaltzat jotzen du bainua hartzean, esate baterako, gero eta gehiago parte hartzea gorputza xaboiz eta urez garbitzeko eta gero lehertzeko zereginetan; izan ere, bainua ez datza huts-hutsik helduen keinu batzuk gogo onez imitatzean; aitzitik, bien arteko gertu-gertuko une goxo eta alaiak da bainua, zeinak helburu argi eta zehatz bat baitu.

Autonomia lortzeko prozesuko lehen urrats horiek ez dira zailak izango, ez bada jarrera axolagabe edo zabarrak hartzen, ez bada eskaera goiztiarrik egiten eta ez bada «laissez-faire» moduko jarrerarik hartzen.

Haur-helduek elkarrekin egiten dituzten jarduera horiek aldatu egingo dira pixkanaka. Haurra, arian-arian, jokalaria nagusi bilakatuko da, eta helduak, berriz, gero eta parte-hartze txikiagoa izango du. Dena dela, lau urte beteta dituela ere, haurrak oraindik heldua behar izaten du alboan; helduaren parte-hartzea behar izaten du, baita haren pazientzia eta adorea ere. Izan ere, oraindik ezin ditu ekintza guztiak bere kabuz egin. Helduak kontu handiz topatu behar du noiz behar duen haurrak bere laguntza, ez dezan porrot egin duenik sentitu eta abailduta gera ez dadin. Kontrara, norik lagundua baduela sentitu behar du. Bere gorputzaren ongizatea helduari ardura diola nabaritu behar du.

Gainera, gorputza zaintzeko une horiek, aukera paregabea dira, orobat, hurbileko solasaldi alaiak izateko.

### Ondorioak

Haurraren autonomia oso onuragarria da bai bere buruarekin duen harremanerako bai inguruan duen mundu eta pertsonetikiko harremanerako. Izatez, ardatzetako bat da, betiere ez bada autonomia aizunaren hiru «segada» handietan erortzen:

- baldintzatzea
- eskakizun goiztiarregiak egitea (jarrera axolagabe eta zabarren ondorioz).
- «laissez-faire» jarrera hartzea

Lankidetzan aritzea ez da baldintzatzearekin nahasi behar. Izan ere, baliteke haurra itxuraz helduarekin elkarlanean aritzea, baina benetan «koreografia» zehatz bati jarraitzen egotea. Helduen «esanak betez» harengandik espero den hori ematera ohitzen da haurra, eta horren arabera dihardu. Barneratu dituen mugimenduak betetzen ditu, helduari laguntzeko, baina ez da gai egoera berrietara egokitzeko. Aldiz, benetako autonomia izanez gero, haurrak bere kabuz erantzun diezaike egoera berri. Nor bere buruaren ezagutzari dagokionez autonomia lortzeak honako hau adierazten du: nork bere motrizitatea menderatzen duela, jardunaren bidez inguruneari lotuta eskarmentua hartzen ari dela, unean uneko bere garapen-mailari dagozkion jokabideak erabiliz ekintza «eraginkorrak» egiteko gai sentitzen dela eta bere interesen arabera diharduela. Haurra bere esperientziak askatasunez bideratu ditzakeenean, autonomia horrek aukera ematen dio bere burua nahierara adierazteko, bere ekintzen eraginez jabetu eta haietatik irakaspenak ondorioztatzeko, zer aukera eta muga dituen jakiteko, inguruan duen munduan ekiteko, eragiteko eta gizarteratze-prozesua aurrera egiteko.

Haur-eskola eta haurtxoentzako gela askotan, baita zenbait familietan ere, helduen helburua da haurra ahalik goizen bilakatzea autonomo, haurraren benetako heldutasuna kontuan hartu gabe. Gainera, haurraren benetako heldutasuna ez da soilik haren adinaren edo garapen motor eta kognitiboaren araberkoa. Haurraren autonomia lortzeko haren heldutasun afektiboa eta soziala gainditzen bada, haurrak uste izango du helduak lagundu egin nahi ez diolako ezarri diola eskakizun hori. Eta haurra, berez, laguntza behar duen pertsona izanik, iruditzen zaio bere izatasun osoa errefusatzen dutela. Autonomiaren ikuskera horrek (bere kabuz jatea dela, bere kabuz eskuak garbitzea dela edo beste edozein jarduera dela) sasi-autonomia baino ez du sortzen, zeinak ezinegona, larritasuna eta utzikeria-sentimendua eragingo baitu. Horrek, beraz, ez du zerikusirik benetako gizarteratze-prozesuarekin.

Helduak gizarteratzeko bidean lagun egin behar dio haurrari, betiere haurraren autonomia-premiak errespetatuz eta muga argi batzuk ezarrita, presa gabe, amorru gabe eta adierazpen ezkorrik gabe, jarrera irmo eta aldi berean ulerkorra hartuta eta errealtatearen eskakizunak eta gizarte-arau zehatz batzuk onartzera bultzatuta. Inguruan duen munduan kokatzen lagunduz gero, bere mugak, errealtatea eta besteen interesak ezagutzen laguntzen zaio. Izan ere, «laissez-faire» horrek —askotan ikuspegi kritikotik «berekoikeriaren» funtsez jotzen den jarrera horrek— benetako utzikeria-sentimendua eragiten dio haurrari. Haurrak ez du pentsatzen helduak jarrera horren bidez konfiantza eta ulermena adierazten dionik; aitzitik, haren ahuleziaren eta ezintasunaren adierazletzat jotzen du jokabide hori. «Laissez-faire» jarrerari, gainera, ezin zaio luzaroan eutsi. Uneren batean, egoeraren kontrola berreskuratu behar du helduak ezinbestean. Ordurako, baina, baliteke indarra, alegia, biolentzia, erabiltzera behartuta egotean. «Laissez-faire» jarrera, beraz, bi aldeentzat da arriskutsua. Aldiz, haurren gaitasunetan egiaz uste osoa badugu, orduan guztiz sinetsiko dugu elkarren konfiantzan oinarritutako erlazioa lagungarri zaiola haurrari gure proposamenak bete ditzan eta azaltzen dizkiogun arauak aintzakotzat har ditzan, nahiz eta ezin izango ditugun gatazkak beti saihestu.

Ika-mika horiek haurraren eta helduaren artean gertatzen dira, baita haurraren beraren baitan ere, elkarren kontrako bi gurari dituenean. Izan ere, haurra ezbaian ibiltzen da autonomia- eta mendekotasun-nahien artean. Ez du independente bilakatu nahi, baizik eta dependentzia hori zehaztu eta bere ikuspegia adierazi. Ezartzen dizkiogun mugak gainditzen saiatzen da, edo, gutxienik ere, muga horiek zabaltzen. Behin eta berriz frogatu beharra dauka baliagarritasuna eta egonkortasuna. «Atzo

ezinezkoa zen hori egitea, edo debekatua zegoen, baina, posible al da gaur?» Era berean, bere borondatea adieraziz noraino iritsi daitekeen jakin nahi du, betiere helduaren maitasuna kolokan jarri gabe. Lantzean behin, helduak proposatutako bidetik aldendu eta bere borondatearen arabera jarduteak mugak non dituen frogatzen saiatzen da haurra; horrek, baina, ez du adierazi nahi sistematikoki helduaren kontra dagoenik. «Aurkaritza-aldi» hori, dena den, askotan kontrakoa uste bada ere, ez da ezinbestean igaro beharreko fase bat. Aitzitik, haurrak etengabe helduaren borondateari lotuta dagoela sentitzen duenean soilik gertatzen da, edo aurkaritzaz bestelako biderik topatzen ez duenean bere ikuspuntua gailentzeko. Haurra helduraren borondatearen aurka egitera eta uneoro bere iritzia babestera behartuta sentitzen da, eta horrek eragiten ditu gatazkak; alabaina, badago gatazka horiek saihesteko modua. Helduak haurrari egiazko autonomia garatzen eta gizarteratzen benetan lagunduz gero, negoziazio bilaka daitezke aurkaritza-tirabira horiek; horretarako, askatasun-esparru bat eskaini behar dio haurrari, eta erabakiak hartzeko eta autonomiaz jokatzeko aukera eman, aldi berean mugak non diren zehatz-mehatz adierazita.

Askatasunez ekiteko aukera ematen bazaio, haurrak uste osoa izango du helduarengan, eta ez du sentituko hark hertsatzen duenik; horrek oinarritzko segurtasuna garatzen lagunduko dio, behar bezala gizarteratzeko eta gizarartean egokiro hedatzeko.

Autonomia ez da betebehar bat, baizik eta haurraren eskubide bat, eta eskubide hori garatzeko baldintzak ezartzen direla bermatu behar da.


Ez dago «autonomiaren ikaskuntzarik»: haurra ez da autonomo bilakarazten; lagun egiten zaio bere autonomia garatzeko bidean.

Haurrari autonomia garatzen eta autonomiaz jarduten laguntzea ez da inondik ere eginkizun erraza, arreta handiz jokatzeko eskatzen baitio helduari, baina, era berean, eginkizun zirrargarria ere bada, estimulazio edo jarduera bideratuko edozein programa baino areago. Pertsonaren garapenaren benetako ardatza da.

J. Falken artikulu honetatik aterata: “Les fondements d'une vraie autonomie chez le jeune enfant” (2003), Association Pikler Lóczy (Budapest) eta Association Pikler Lóczy (Paris, Frantzia), 2007.

*Revista Infancia* aldizkarian argitaratua, 116. zk.an, 2009ko uztail-abuztuetan.





LANBIDE  
EKIMENA